

JANTZIEN, MATERIALAREN ETA EKIPOAREN IKUSKAPEN PROZEDURAK

Jarduera bakoitzaren hasieran taldearen partaide guztiak egoki ekipatuak daudela egiaztatzeko ikuskapen azkar bat egin behar da. Protokolo hau ahoz burutu daiteke, baina zalantzaren bat agertzekotan ikuskapen bisuala egin beharko da.

Jantzien, materialaren eta ekipoaren ikuskapena, hauen falta somatu edo egoera txarrean daudela somatzekotan, erraz ordezkatuak izan daitezken leku baten egin beharko litzateke. Ondorengo alderdiak berrikusi eta kontrolatzea gomendatzen da:

- Aurreikusitako baldintza meteorologikoak kontuan izanik, jantziak egokiak diren egiaztatu.
- Aldatzeko arropa daukagula eta egoki iragazgaituz eramaten dela aztertu.
- Eguzkirako babes elementuak egiaztatu: eguzkirako betaurrekoak, txanoa, krema...
- Jende guztia egoki helikatu eta hidratatu dela egiaztatu.
- Eramango diren helikagaiak eta ura egiaztatu.
- Hau eramatekotan, material kolektiboa egiaztatu.
- Ekipoaren doikuntza berraztertu.